



ARTE, ZIENTZIA, GIZARTEA, TEKNOLOGIA DEIALDIAREN EBAZPENA

2023ko abenduaren 21ean, Arte, Zientzia, Teknologia, Gizartea deialdia argitaratu zen Tabakaleraren webgunean, arte garaikidea departamentuaren bidez, zientzia eta teknologiarekiko lotura bilatzen duten proiektu artistikoak sustatuko helburuarekin.

Aipatutako oinarrien 4.atalean aurreikusitakoarekin bat etorriz, batzorde bat eratu zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen (Edurne González eta Natxo Rodríguez) eta Tabakaleraren (Ane Agirre, Laida Mendia eta Ibai Zabaleta) jasotako proposamenak baloratzeko.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, egonaldia lortu nahi duten proiektuak hautatzeko oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorriz, eta CICC/Tabakalerako zuzendari nagusiak, aipatutako batzordeak proposatuta, honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsonak egonaldian parte hartzeko aurkeztutako proiektuak hautatzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Hautatutako proiektu bakoitzari honakoa eskaintzea:

- 1) Bidaia eta ostata:
 - a) Hautagaia ez bada EAEn bizi:
 - i) Joan-etorriko bidaia bat, bizitokitik edo egonaldia egin baino lehen dagoen lekutik, adjudikaziodunak hala nahi izanez gero.
 - ii) Logela bikoitza banako batentzat, komuna, lanerako toki txiki bat eta wifi konexioa barne; sukalde eta egongelaren erabilera partekatua. Ereku komun horretarako sarbidea ikastetxeak ezarritako erabilera-arauek arautu ahal izango dute.
 - b) Hautagaia EAEn bizi bada:
 - i) Joan-etorriko bidaia EAeko bizilekutik. Donostiatik edo inguru horretatik kanpo bizi bada, goian aipatutako ostata izan dezake, edo, bestela, garraioak ordaintzeko gehienez ere 500 euroko laguntza jaso dezake egonaldiaren hilabete bakoitzeko.
- 2) Aseguru medikoa egonaldiak irauten duen bitartean, baldin eta Europan bizi ez bada.
- 3) 1.000 € garbi egonaldiaren hilabete bakoitzeko, dieta eta mantenu gisa. Dirua txeki izendunaren bidez entregatuko da. Kopuru horri zerga-atxikipena aplikatuko zaio, egoiliar bakoitzaren egoera fiskalaren arabera. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da (036 ereduia Espainian bizi direnentzat, eta zerga-egoitzaren ziurtagiria atzerrian bizi direnentzat).
- 4) Lan-estudioa Tabakalerako artisten espazioan: oinarritzko altzariak, korrante elektrikoaren hargunea eta argiztapena eta Internet wifi konexioaren bidez. Estudioa proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta esleituko da.
- 5) Sarbidea office-ra eta espazio komunitarioa.
- 6) Sarbidea Tabakalerako baliabide guztietara, Tabakalerako liburutegiko sorkuntza espezializatuei buruzko funtsetara eta Medialabeko baliabideetara.
- 7) Sarbidea irudi eta soinuaren edizioko estudioetara, praktika eszenikoetarako plato edo espazioetarako eta ikus-entzunezko baliabideetara maileguan.
- 8) Tabakalerako lantaldearen baliabide teknikoak eta laguntza, beharizanen eta erabilgarritasunaren arabera.
- 9) Laguntza ekonomiko gehigarri bat, gehienez ere 1.500 eurokoa, aurrekontua aurkeztu eta Tabakalerak onartu ondoren, ekoizpen-prozesuari lotutako gastu txikiak ordaintzeko; gastu horiek nahitaez produkzio horretarako izango dira, eta ez dira ekipamendu teknologikoa eta material bibliografikoa erosteko. Tabakalerako langile jakin batzuek kudeatuko dute ekoizpenerako diru-kopuru hori. Tabakalerak ez du inolako gasturik ordainduko, aldez aurretik langile horiek



konsultatu gabe eta beraiek onartu gabe. Egoiliarrak aurrekontu osotik (1.500 €) gehienez 500 € bideratu ahal izango ditu ordainsari propio gisa, dagokion epean faktura aurkeztuta. Horretarako, deialdi hau ebazteko unean indarrean dagoen legeriaren arabera eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu.

- 10) Proiektuaren garapenean laguntza kontzeptuala eta artistikoa ematea, eta laguntza Tabakalarekin lankidetzan aritzen diren zientzia- eta teknologia-arloko agenteei proiektua aurkezteko.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Donostian, 2024ko otsailaren 27an

Edurne Ormazabal Azpiroz
Zuzendari nagusia



1. ERANSKINA

IZENA	ABIZENAK
ALIZEE	ARMET
RAQUEL	ASENSI BLANCO
ELISA	LORENZO RAMÍREZ
ENERITZ	TEJADA CABELLOS
LEA MARIE	URIA GARCÍA